

2026 EKA. 24

## Garazi Albizuaren 'Termita'-ko pertsonaiak euskaraz mintzo dira Bego Montorioren eskutik

Garazi Albizuaren 'Termita' eleberria –iazko gaztelaniazko Literatura Euskadi Saria– euskaraz irakur daiteke. Bego Montorio arduratu da itzulpena egiteaz. 47 urteko emakumea du protagonista liburuak. Bere ondoan, amama eta ama ditu, hiru belaunaldien arteko katea osatuz, bere argi-ilun guztiekin.



Garazi Albizuak Donostian aurkeztu du 'Termita'ren euskarazko itzulpena. (Maialen ANDRES | FOKU)

Xole Aramendi X



'Termita' nobelako pertsonaiak euskaraz mintzo dira Bego Montorioren itzulpenari esker. Idazlea, komikigilea, gidoilaria eta diseinatzaile grafikoa da Garazi Albizua (Santurtzi, 1985). Euskadi Literatur Saria eskuratu zuen iaz Galaxia Gutember argitaletxearekin helduei zuzendutako bere lehen lanarekin.

Inazio Mujika Iraola ondoan zuela egin du aurkezpena idazleak asteazken honetan. Ereinek argitara ematen duen bigarren izenburua da oraingoa, 2024ko 'Egunen akabera'-rekin batera. Bien arteko paralelismoak ikusi ditu editoreak. «Ahots beretsua antzeman nuen bietan. Garazi ari da mundu bat eraikitzen eta koherentea dirudi», esan du.

47 urteko emakumea du protagonista liburuak. Teleoperadore bezala egite du lan. Lehen pertsonan idatzia, bera da narratzailea. Beste bi emakume agertzen dira, ama, 'la Jose' –22 urterekin izan zuen alaba– eta amama, Esperanza –19rekin izan zen ama–. Protagonistak ez du seme-alabarik.

«Badakite zerbait lan prekarioari eta pobrezia eta bazterketa sozialari buruz. Ez da emakume baten istorioa, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren zauriei buruzko nobela baizik. Hiru belaunalditan zehar pobrezia, zauri emozionalak eta indarkeria, modu isilean, nola ematen diren ikusiko dugu nobelan. Biziraupenari, maitasunari eta norbera izateko borroka eta nortasunaren eraikuntzari buruzkoa da 'Termita'», laburtu du Mujika Iraolak.

Kontakizuna ez da lineala, kapitulu laburren bidez kontatua dago. «Horrela ezagutu ditugu protagonistaren sexu harremanak, desirak, familiaren sekretuak, gorputzarekiko eta janariarekiko duten obsesioa....», kontatu du.

«Amamarekin harreman berezia dauka, oso sinesgarria, amama idealizatu horien kontra. Hori dago nobelaren erdigunean. Protagonistaren ahotsa gustatu zait gehien, indartsua eta ironikoa da, berezia hasieratik. Harrapatzen zaituen hizkera dauka. Idazkerak ez du sentimentalismorik, ez du biktimizatzen ez errukirik bilatzen», sakondu du.

Editorearen esanetan, alderdirik originaletako bat protagonistak entzuten dituen barruko ahotsak dira. «Indargunea dira nobelan. Ahots mitologikoak dira, barruko obsesioak erakusteko balio diona Garaziri. Ez dira pertsonaiak, desio eta zauriak ulertzeko modu literarioa baizik», azaldu du.

### Haserretik

'Egunen akabera' eta 'Termita' liburuan paralelismoaren inguruan Albizuak kontatu du baten zirriborua bukatu bezain azkar bestearekin hasi zela. «Saiatzen naiz hau ez egiten lehenengoaren ahotsak eta erritmoak bigarrena kutsatzen duelako. Kasu honetan gustatu zitzaidan hori gertatzea», esplikatu du.

«Haserretik idazteak badu berezko magnetismo bat, kudeatzen zaila dena», zioen idazleak NAIZ iazko urtarrilean eskainitako elkarrizketan. Une hartan sentitzen zuen haserreaz aritu da aurkezpenean. «'Termita' idaztean oso haserre nongoen nirekin eta atmosferarekin, edo nik xurgatzen dudan horrekin. Nirea ez dena, baina bizitzeko eta bizitza ulertzeko moduan eragiten didana», adierazi du.

«Gorputzak asko du esateko' esaldia etorri zitzaidan. Edonork gure gorputzaz nahi duena esan eta normalizat hartzen da. Zu zure itimitatean zaudenean gorputza emanda dago eta kritika guztiak hor daude. Horrek haserretzen nau. KmO-ra eraman nuen haserrearen eta maitasunaren iruditeria osoa. 'Egunen akabera' Santurtzin kokatzen da eta 'Termita'n ez dut herririk aipatzen, eta Santurtzi izan zitekeen», jarraitu du.

Prekarioa den familian nola garatu maitasuna? «Harremanak ez dira Disneyko polit horiek. Piloa gorrotatzen dut zoriontasunaren irudia: tximinia piztuta, Gabonetako zuhaitza, umea (mutila) egurrezko trenarekin jolasean, neska puzlea egiten edo irakurtzen, gizon zuria besaulkian dago eta ama labetik atera berri dituen gailetekin agertzen da. Coca-colak sinatutako zoriontasuna. Hori terriblea da eta nire pertsonaiak ez du sekula lortuko», esan du.

Amak bai, amak sinesten du bide eta estetika jakin bat jarraituz gero lortuko duela arrakasta. «Ternatuta dago baina hilko da lortu barik. Harremana nahiko muturrekoa da», kontatu du.

Ahots mitologikoez gauzak besteon oneritzia jaso gabe egiteko modua lortzeko bide eman diote idazleari. «Inork ez esatea egiten duena edo jaten duena egokia den ala ez».

«Asko gustatu zait, oso hunkigarria da», aitortu du, lana euskaraz irakurtzean izan duen sentipenaz.

Bego Montoriok «gustu handiz» itzuli du liburua. «Ahots desberdina da. Ez nintzen identifikatzen pertsonaiekin –ni la Joseren belaunaldikoa naiz– baina gertukoak eta interesgarriak egin zaizkit».

Itzulpen prozesuaren kolektibotasuna nabarmendu du. «Lehen bertsioa Garaziri pasa nion nahiz normalean ez dudan egiten itzulpena bukatu aurretik. Garaziren oharren ondoren Inazioaren jaso nituen eta zoragarria editore on batekin lan egitea. Hasieratik garbi utzi genuen ni ez nintzela izango bere euskarazko ahotsa, ez nintzela saiaturko hori izaten, erabat faltsua baita. Baina aldi berean nahi nuen identifikatzea bere burua. Garazi Ezkerraldekoa da, ni Bilbokoa eta bizkaieraren eragina hor dago nahiz euskara batuan idazten dudana; kidesuna sortu du hitzak aukeratzek», argitu du.

«Ez da erraza izan, ez dut ezagutu itzulpen errazik, eta denek bezala zailtasuna tonua hartzea da. Sartuz gero hizkera aratza eta iradokitzailea lortzen da».

«Hizkera 'makarra' –hala deskribatu dute erderazko bertsioan– euskaraz ematea ez da erraza. Gaztelaniak ibilbide luzea du egina eta masa handia du. Euskaraz idaztean badirudi berak sortu duela eta zailtasuna gehitzen zaio», esan dio editoreak.

«Antipatikoena ama egin zait baina horri kontra egin nahi nion iruditzen baitzait oso 'gu' dela. Bakoitzak daukanarekin egiten du aurrera», gaineratu du.

«Amak maite du alaba, baina pentsatzen du modu bat zoriontsu izateko eta alabak ez du nahi. Bere erronka osoa hori da» Albizuaren esanetan. «Amamaren kasuan disimulatu egiten du, egon zaitez tranqil bazterrean, ez da hain iluna. Isilik biziraupena bermatu nahi du. Protagonistak kontrakoa pentsatzen du. 'Tuntuna banaiz zer? Utzidazue iritzia ematen, gero garatuko dut'. Ama berriz fededuna da, Disneyko printzesetan sinesten du. Dena katalogokoa, ea horrela zerbait lortzen duen».

Ivan Landak sortu du azaleko irudia, berria, euskarazko bertsiorako.

PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA



Klikatuena



**Banquet du Canon français à Biarritz : le maire n'interdira pas l'évènement**




**Precipitado juicio inquisitorial a dos manos**



**El nuevo sistema de corrección fijado por decreto puede explicar el aumento de ceros**



**ZETAKek etorkizun distopikoaren ateak ireki ditu MITOAROA III ikuskizunarekin**



**El portero del Sabadell como síntoma; 'barra libre' para un asalto cuasigolpista**